

AZKOITIKO

ORDENANTZA FISKALAK

2015. URTEA

2014/12/19 eta 2015/03/26an GAOn argitaratu ziren Ordenantza Fiskalen aldaketak.
2014/12/29an GAOn argiratu ziren ZUBIAURRE-ELKARGUNE INSTITUTUKO akats zuzenketak.

AURKIBIDEA

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala.	83
Ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala.	93
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	99
Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.	103
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.	113
Udal-jabari publikoa okupatzeagatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskala.	119
Zerbitzu publikoak eman eta jarduerak egiteagatiko tasa arautzeko ordenantza.	127
Etkez etxeko zerbitzuaren onuradunen partaidetza ekonomikoa.	132
Zubiaurre Elkagune Institutoko Tarifak.	134
Baztartxo aretoan udal zerbitzuak emateko edo udal jarduerak egiteko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.	149
Udal-hilerrian ematen diren zerbitzu eta emakidei dagokien tasa arautzeko ordenantza fiskala.	151
Aurretiko baimena, komunikazio edo erantzukizuneko adierazpen bitartez, baita jarduera hasi ondoko kontrolen, aldizkako kontrolen eta aldizkako berrikuspenen bitartez ere, herritarren eta enpresen jardueran esku-hartze administratiboko zerbitzuak emateagatiko tasa arautzeko ordenantza.	153
Hondakin solidoak eta geldoak biltzeko, tratatzeko eta aprobetxatzeko zerbitzuak. tarifak 2014 urtaldirako.	159
Ur hornikuntza, saneamendu eta azpiegituren dirubide sarien tarifak 2014 urtaldirako	163
Berditasun arloak antolaturiko zerbitzuak eman edo jarduerak burutzeagatik prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.	

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEN ZERGAREN KUOTA ZEHAZTEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

I. KAPITULUA: izaera eta zerga-egitatea

1. artikulua.

1. Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga zuzeneko zerga da, eta trakzio mekanikodun ibilgailuen titularitatea zergapetzen du, horien maila, kategoria, potentzia, edukiera eta karga edozein dela ere, baldin eta ibilgailu horiek bide publikoetatik zirkula badezakete. Zirkulazio-baimenak Azkoitia adierazi behar du helbidetzat.

2. Erregistro publikoetan matrikulatutako autoak izango dira bide publikoetan zirkulatzeko gai, erregistro horietan bajarik hartzen ez duten bitartean. Aldi baterako baimena eta matrikula turistikoak dituzten ibilgailuek ere izaera hori izango dute, zerga honen aplikazio-eremuaren baitan.

3. Zergak ez ditu honako hauek zergapetuko:

- a) Erregistroetan baja emanda izanik, modeloaren antzintasuna dela-eta erakusketa, ekitaldi edo lasterketatan parte hartzeko baimena jaso duten ibilgailuek, baldin eta izaera horretako ibilgailuetara mugatutako ekitaldiak badira.
- b) Trakzio mekanikodun ibilgailuek atoian eramandako atoiek eta erdi-atoiek, baldin eta horien karga erabilgarria 750 kilogramokoa baino handiagoa ez bada.

II. KAPITULUA: Salbuespenak

2. artikulua.

Zergatik salbuetsita izango dira:

- a) Estatuko ibilgailu ofizialak, Euskal Autonomia Erkidegokoak, Gipuzkoako Foru Aldundikoak eta Gipuzkoako udal-entitateetakoak, Defentsara edo herritarren segurtasunera atxikita badaude.
- b) Ordezkaritza diplomatiko, kontsul-bulego, diplomazia-agente eta karreradun kontsul-funtzionario kreditatuen ibilgailuak, titularrak haien herrialdeetako herritar badira eta identifikazioa agerian badute, eta, betiere, salbuespena elkarrekikoa bada herrialdeen artean, bai hedaduran, bai mailan.

Halaber, salbuetsita izango dira nazioarteko erakundeetako ibilgailuak eta haien funtzionarioen edo estatutu diplomatikodun kideen ibilgailuak, baldin eta nazioarteko erakunde horiek egoitza edo bulegoa badute Estatu espainiarrean.

- c) Nazioarteko itun edo hitzarmenek xedatutakoaren baitan, salbuetsita dauden ibilgailuak.

- d) Anbulantziak eta osasun-laguntzako nahiz zaurituak eta gaixoak garraiatzeko zeregin zuzena duten gainerako ibilgailuak.
- e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinaren a) letran aipatzen direnak.

Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, ezintasuna duten pertsonen izenean matrikulatuak, pertsona horiek bakarrik erabiltzekoak direnean. Salbuespen hau baldintza horiek betetzen diren bitartean aplikatuko da, pertsona ezinduek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

1 ataleko e) letrak aipatzen duen salbuespen horretarako eskubidea izango bada, beharrezkoa da ibilgailua ezintasuna duen pertsonaren erabilera eskusiborako zuzendua egotea. Horrek, beraz, ibilgailuak zirkulatzen duenean beti ezintasuna duena barruan egotera behartzen du.

Salbuespen hau oinarritzen duen baldintza espresuki ez betetzeak, hau da, ezintasuna duen pertsonaren izenean matrikulatutako ibilgailuak erabilera eskusiboa ez izatea, Zerga urraketatzat hartuko da eta 300 euroko diruzko isun finkoaz zigortuko da. Honez gain urte korrontean onarturiko salbuespena indargabetuko da.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik aplikatuko zaizkie salbuespen horien onuradun diren subjektu pasiboei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek izango dira ezintasuna duten pertsonak:

- a) Ehuneko 33 edo gehiagoko eta ehuneko 65etik beherako minusbalioetasuna duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran daudenak, hau da, Minusbalioetasun-maila aitortu, aldarrikatu eta kalifikatzeko Prozedura arautzen duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskinean adierazitako baremoko A, B edo C letretan deskribatutako egoeretakoren batean daudenak, edo aipatutako baremoko D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortu dituztenak.
- b) Ehuneko 65eko edo gehiagoko minusbalioetasuna duten pertsonak.

Aurreko a) eta b) letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko A egoeran badaude 1.971/1999 Errege Dekretuak 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, 14 zaldi fiskaleko muga ez zaie aplikatuko, baldin eta ibilgailua gurpil aulkia eramateko egokituta badago.

Salbuetsita daude, baita ere, guraso-ahal, tutoretza edo kuradoretza dela-eta ardurapean minusbalioetasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duen pertsona bat duten pertsonen jabetzako ibilgailuak. Ibilgailu bat baino gehiago badute jabetzan, ibilgailu bakarrak izango du salbuespena.

- f) Udal honek garraio publikorako jarritako edo administrazio-emakidapean garraio publikoko zerbitzura atxikitako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak; betiere, bederatzi plaza baino gehiago badituzte, gidariarena barne.
- g) Nekazaritzako Makineriako Inskripzio Kartila duten traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makinak.

2. Artikulu honetako 1. idatz-zatiaren e) letran aipatzen diren salbuespenak gozatu ahal izateko, ibilgailuen titularrak udalerrri honetan erroldatuta egongo dira, eta zergatik salbuestea eskatuko dute idatziz herritarrak artatzeko bulegoan, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dituztela:

2.1. Minusbaliotasuna duten pertsonak gidatutako ibilgailuak:

.-Minusbaliotasuna duen pertsonaren izenean dagoen ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia.

.-Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.

.-Organo eskudunak emandako minusbaliotasun-ziurtagiriaren fotokopia.

.-Ibilgailuaren aseguruaren polizaren fotokopia.

2.2. Minusbaliotasuna duten pertsonak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuak:

.-Minusbaliotasuna duen pertsonaren izenean dagoen Ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia.

.-Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.

.-Organo eskudunak emandako minusbaliotasun-ziurtagiriaren fotokopia.

.-Ibilgailuaren aseguruaren polizaren fotokopia.

.-Ibilgailuaren erabilpenari buruzko zinpeko aitortpena.

.-Minusbaliotasuna duten pertsonen guraso-ahal, tutoretza edo kuradoretza egiaztatzen duten agiria.

3. Salbuesteko eskaerak ziurtagiriak kobratzeko borondatezko epea amaitu arte egin ahal izango dira. Geroago egiten diren eskaerek eragina izango dute eskaera egin den zergaldiaren hurrengo zergalditik aurrera.

4. Artikulu honetako 1. idatz-zatiaren f) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak gozatu ahal izateko, interesatuek eskaera bat aurkeztu beharko dute, eta bertan ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adierazi.

G letra duen atalaren ondorioetarako, salbuespena eskatuko dute herritarrei artatzeko bulegoan, eta idatzizko eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztuko dituzte:

.-Ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia.

.-Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.

.-Nekazaritzako makineria inskribatzeko kartilaren fotokopia, edo Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuko Nekazaritza Makineriaren Erregistro Ofizialean alta hartu izanaren frogagiria, nahitaez ibilgailuaren titularraren izenean luzatua.

III. KAPITULUA: Subjektu pasiboak

3. artikulua.

Zerga honetako subjektu pasiboak dira Zerga alorreko Foru Arau Orokorreko 35.3 artikulua adierazitako pertsona fisikoak edo juridikoak eta entitateak, ibilgailuaren zirkulazio-baimenean haien izena azaltzen den neurrian.

IV. KAPITULUA: Zerga-aldia eta sortzapena

4. artikulua.

- 1) Zerga-aldia bat dator urte naturalarekin, ibilgailua lehen aldiz eskuratzen edo hari behin betiko baja ematen zaionean izan ezik. Salbuespenezko bi kasu horietan, eskuratzen den egunean hasiko da edo Trafikoko Buruzagitzan behin betiko baja gertatzen denean amaituko da zerga-aldia, hurrenez hurren.
- 2) Zerga-aldiko lehen egunean sortzapetzen da zerga.

V. KAPITULUA: Zerga-kuota

5. artikulua.

1. Eranskinean adierazitako tarifa-taulari jarraiki ezartzen da zerga.
2. Ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo horiei behin betiko baja ematen zaientean, hil naturalei erreparatuta hainbanatuko da kuotaren zenbatekoa, eskuratu den edo baja gertatzen den eguneko hila barne hartuta.

Kuota modu berean hainbanatuko da, dagokion erregistro publikoan aldi baterako baja ematen bazaio ibilgailuari, hura lapurtua edo ebatsia izan delako.

3. Aurreko atalean adierazitako tarifak ibilgailuei nola aplikatuko zaizkien erabakitzeko, abenduaren 31ko 114/1999 Foru Dekretuak araututakoari erreparatuko zaio (foru-dekretu horrek ibilgailu-mota desberdinen kontzeptua

zehazten eta Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergako tarifaren aplikazio-arauak ezartzen ditu) Berariaz:

1. Zerga honen baitan, zergaren tarifek adierazitako ibilgailu-moten kontzeptua zehazteko, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzekoak, II. eranskinean adierazitakoari erreparatuko zaio.
2. Furgoiak, furgonetak, ibilgailu misto moldagarriak eta turismoen deribatuak turismo gisa zergapetuko dira, horien potentzia fiskalari erreparatuta. Hala ere, kamioi gisa zergapetuko dira ibilgailu horiek, 1.000 kilogramotik gorako karga erabilgarria garraia badezakete.
3. Autokarabanak turismo gisa zergapetuko dira, haien potentzia fiskala aintzat hartuta.
4. Adierazitako tarifa-taulak D) puntuan adierazten ditu, oro har, traktoreak. Hala, atoi-kamioiak, obra eta zerbitzuetarako traktoreak eta autopropulsatutako makinak epigrafe horretan sartzen dira, betiere, bide publikoetatik zirkula badezakete trakzio mekanikodun beste ibilgailu batzuek garraiatu edo atoian eraman gabe.
5. Zerga honen baitan, motozikleta gisa zergapetuko dira hiru gurpileko ibilgailuak eta laurizikloak, eta, ondorioz, haien zilindradari erreparatuta ordainduko dute zerga. Ziklomotore gisa zergapetuko dira lauriziklo arinak.
6. Ibilgailu artikulatuek aldi berean eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dute zerga, bai atoi-potentzia daramanak, bai atoian eramandako atoei eta erdi-atoiei.
7. Zaldi-indar fiskalen bidez adieraziko da potentzia fiskala, eta azken hori ezartzeko, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzekoak, V. eranskinean adierazitakoari erreparatuko zaio.

VI.- KAPITULUA: Hobariak

6. Artikulua

%50 hobaria ezartzen da motor elektrikoa duten ibilgailuen kasuan. Hobariaren eskaerak ziurtagiriak kobratzeko borondatezko epea amaitu arte egin ahal izango dira. Geroago egiten diren eskaerek eragina izango dute eskaera egin den zergaldiaren hurrengo zergalditik aurrera.

Honez gain, hobaria onartzeko Udal zerga-bilketan eskatzaileak ez du zorrik eduki behar.

VII. KAPITULUA: Kudeaketa eta likidazioa.

7. artikulua.

Azkoitiko Udalari dagokio zerga kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea, biltzea eta zerga-kudeaketaren baitan emandako egintza administratiboak berrikustea, baldin eta ibilgailuaren zirkulazio-baimeneko helbidea Azkoitiko udalerrian badago.

8. artikulua.

Zerga autolikidazio-erregimenean kudeatzen da, zergan alta emanda dauden ibilgailuekiko, haien matrikulazioari eta zirkulazio-baimenari erreparatuta, eta, gainerako ibilgailuena, berriz, udalak urtero egiten duen eroldari jarraituta.

Udaletxean dauden inprimaki normalizatuetan egingo dira aitorten-likidazioak. Zerga kalkulatzeko elementuak jasoko dituzte aitorten-likidazioek, eta, haiekin batera, erosketa edo aldaketa kreditatzen duten agiriak, ezaugarri teknikoen ziurtagiria eta subjektu pasiboaren Nortasun Agiri Nazionala edo Identifikazio Fiskaleko Kodea aurkeztu beharko dira.

Aitorten-likidazioa eginda, zerga-kuotaren zenbatekoa entitate laguntzailereren batean sartzeko aukera izango du interesatuak. Ibilgailua matrikulatu baino lehen, bulego kudeatzaileak egiaztatu egingo du ordainketa zenbateko zuzenaz egin dela, eta egiaztapen horren fede emango du aitorten-inprimakian.

9. artikulua.

1. Zerga ordaindu izana kreditatu beharko da Trafikoko Buruzagitzan ibilgailu bat matrikulatzea eskatzeko, zirkulatzeko gaitasunaren ziurtagiria eskatzeko edo ibilgailuari behin betiko baja emateko.
2. Ibilgailuen titularrek zergaren kobrantzarako aurkeztutako azken ordainagiria ordaindu izana kreditatu beharko dute Trafikoko Buruzagitzan, ibilgailuaren aldaketa jakinarazten badute eta, horren ondorioz, ibilgailuaren sailkapena aldatzen bada zergaren baitan. Halaber, ordainketa hori egin izana kreditatu beharko dute, ibilgailuak eskualdatzeko, ibilgailuko zirkulazio-baimeneko helbidea aldatzeko edo ibilgailuari baja emateko. Horrek ez du eragotziko, ordea, kobrantzara aurkeztu diren eta preskribatu gabe dauden zor guztien ordainketa kudeaketaren eta ikuskapenaren bidez eskatzeko aukera, zor horiek sortzapetuta egon eta likidatuak izan daitezkeen neurrian. Ordainketa kreditatzeko betebeharretik salbuetsiko dira 15 urte edo gehiago dituzten ibilgailuen behin betiko bajak.
3. Trafikoko Buruzagitzek ez dute ibilgailuen bajako edo eskualdaketa espedienterik izapidetuko, baldin eta ez bada, aurrez, zerga ordaindu izana kreditatzen.

10. artikulua.*

Ezabatuta

VIII. KAPITULUA: Betebehar formalak eta zerga-betebeharrak.

11. artikulua.

Zerga honen eraginpeko ibilgailuen titularrek Trafikoko Buruzagitzan egin behar dituzte zirkulazio-baimenean adierazten den helbidea haien ohiko bizilekuarekin bat etortzeko egin beharreko tramiteak.

IX. KAPITULUA: Erroldak

12. artikulua.

1. Matrikulatutako ibilgailuek edo zirkulaziorako baimena jasota dutenek martxoaren 2tik apirilaren 17a bitartean ordainduko dute zergaren urteko kuota; hala, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako ediktuen bidez iragarriko dira ordainketa epe hori.
2. Aurreko epigrafean araututakoa betetzeko, urteko erroldaren sistema erabiliko da zerga-kuotak biltzeko. Trafikoko erregistro publikoaren datuak erabiliko dira erroldan aldaketak egiteko.
3. Errolda edo zergako matrikula jendaurrean erakutsiko da kobratze-epea hasteko eguna baino hilabete lehenago, interesatu zilegiek hura aztertu eta alegazioak egin ditzaten, egoki iritziz gero.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko da jendaurreko erakustaldi-epea, eta subjektu pasiboek egindako likidazioaren jakinarazpentzat joko da iragarki hori.

X. KAPITULUA: Itzulketak

13. artikulua.

Zerga sortzapetu ondoren ematen bazaio behin betiko baja ibilgailuari eta zerga-kuota jada ordainduta badago, udalak ofizios itzuliko du haren zenbatekoaren zati proportzionala. Zati hori kalkulatzeko, ordenantza fiskal honen 5. artikuluko 2. puntuan araututako hainbanaketa egingo da.

14. artikulua. Xedapen gehigarria.

11/1989 Foru Arauak araututako betez, zerga honetan aplikatzekoak izango dira zerga-alorreko kudeaketa, likidazio, ikuskapen, bilketa eta arau-hauste nahiz zehapenei buruzko xedapenak, zerga-alorreko foru-arau orokorrak araututakoak.

15. artikulua. Azken xedapena.

2014ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean bai ordenantza hau, bai ordenantza honen eranskina, eta indarrean iraungo dute harik eta indargabetzen edo aldatzen diren arte.

2013ko urriaren 30ean onartu zen behin betiko trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala eta haren baitan kokatzen den eranskina.

6 artikulua 2014ko abenduaren 15eko Osoko Bilkuran onartu zen eta 2015eko urtarrilaren 1an sartuko da indarrean.

- * 10 artikulua hau 2014ko azaroaren 27ko Osoko Bilkuran onartutako zergen eta toki zuzenbide publikoko beste dirusarrera batzuen kudeaketa eta bilketa arautzen duen Ordenantza orokorrak ezabatu du, GAO n iragarri eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean. (GAO 2015/01/26).

ERANSKINA

Bilkura-data: 2013ko urriaren 30ean

Potentzia eta ibilgailu-mota

Kuota eurotan.

	2015
A) TURISMOAK	
9 zaldi fiskaletik beherakoak	40,49
9tik 11,99ra bitartekoak	83,24
12tik 13,99ra bitartekoak	138,73
14tik 15,99ra bitartekoak	194,22
16tik 19,99ra bitartekoak	252,41
20 zaldi fiskaletik gorakoak	324,92
B) AUTOBUSAK	
21 jarleku baino gutxiagokoak	192,28
21etik 50era bitartekoak	273,86
50etik gorakoak	342,33
C) KAMIOIAK	
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	97,60
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	192,28
2.999 kilotik gorako eta 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	273,86
9.999 kilotik gorako karga erabilgarria dutenak	342,33
D) TRAKTOREAK	
16 zaldi fiskaletik beherakoak	40,79
16tik 2era bitartekoak	64,10
25etik gorakoak	192,28
E) ATOIAK ETA ERDIATOIAK, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEK ERAMANDA	
1.000 kg-tik beherako eta 750 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	40,79
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	64,10
2.999 kilotik gorako karga erabilgarria dutenak	192,28
F) BESTE IBILGAILU BATZUK	
Ziklomotoreak	10,20
150 cm ³ bitarteko motozikletak	10,20
125 eta 250 cm ³ bitarteko motozikletak	17,47
250 eta 500 cm ³ bitarteko motozikletak	34,97
500 eta 1.000 cm ³ bitarteko motozikletak	69,92
1.000 cm ³ -tik gorako motozikletak	133,31

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEN ZERGAREN KUOTA ZEHAZTEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek, uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 14.3. artikulua bidez ematen dion baimena erabilia, zerga honen zerga-tasa ezartzen du, hurrengo artikuluan adierazitako moduan.

II. ZERGA-TASAK

2. artikulua.

1.- Hiri-ondasunei ERANSKINEAN adierazitako zerga-tasa aplikatuko zaie Ondasun Higiezin gaineko Zergan.

2.- Landa-ondasunei ERANSKINEAN adierazitako zerga-tasa aplikatuko zaie Ondasun Higiezin gaineko Zergan.

III. ZERGA-OINARRIA ETA KUOTAK

3. artikulua.

1.- Katastro-balioa izango da hiri-ondasunek Ondasun Higiezin gaineko Zergan izango duten zerga-oinarria.

2.- Arauz onartutako katastro-balioa izango da landa-ondasunek Ondasun Higiezin gaineko Zergan izango duten zerga-oinarria.

3.- Aurreko ataletan adierazitako zerga-oinarriei dagokien zerga-tasa aplikatuta zehazten da zerga-kuota. Ordenantza honetako 2. artikulua ezartzen ditu zerga-tasak.

4. Artikulua. Errekargua

1.- Ondasun higiezinak etxebizitza erabilera dutenean, eta subjeto pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoista ez direnean-hirugarren kasuan errentamenduz edo lagapen bidez-, Azkoitiko Udalak 100% errekargua ezarriko du zergaren kuota likidoaren gainean. Errekargua zerga honen subjeto pasiboari exijituko zaie, haren sortzapena zerga sortean den une berean gertatuko da, eta artero likidatuko da, kuotarekin batera.

2.- Errekargu hau aplikatzearen ondorioetarako, katastroaren arabera etxebizitza gisa erabiltzekoak diren lokalak etxebizitza erabilera duten ondasun higiezin hartuko dira. Etxebizitzaren eranskinak barruan sartuko dira, finka erregistral bakarra osatzen dutenean. Ondorio horietarako ere, presuntzio egingo da etxebizitza erabilerako ondasun higiezin bat ohiko egoitza dela baldin eta, zergaren sortzapen egunean, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatuta badago bertan bizi den/direnean ohiko bizilekua dela.

5. artikulua. Errekarguaren salbuespenak

Egiazko ohiko bizileku ez diren bizileku erabilera-ondasun higiezinak salbuespena egongo dira errakargu hau aplikatuz, baldin inguruabar hauetako bat betetzen badute:

5.1.-Modu jarraituan lanbide nahiz merkataritza jardueretako direnak. Salbueste hau aplikatzeko, nahitaezkoa izango da higiezinaren katastroko titularra izatea, edo, hala badagokio, jarduenaren titularrari errentan emateko kontratu bat izatea, erabilpen lagapena edota usufuktua, urtebetekoa edo luzeagoa. Kontratua idatziz jasota ez badago, jarduera hori badela egiaztatzea behar da.

5.2.-Zahar etxeetan edo tutoretzako etxebizitzetan erroldatutako pertsonen titulartasunekoak diren etxebizitzak, beti ere soilik erroldatua azaltzen den azken etxebizitzari dagokiona.

5.3.-Menpekotasun ebazpena jaso dutenak eta bere menpekotasuna dela eta beraien etxebizitza utzi beharra izan dutenak, beti ere soilik erroldatua azaltzen den azken etxebizitzari dagokiona.

5.4.-Administrazio eskudunak aurre-egoeran deklaraturako etxebizitzak.

5.5.- 2015ko urtarrilaren 1a baino lehenago bere helburuen artean ondasun higiezinaren erroldan ematearena duen erakunde publiko baten esku jarritako etxebizitzak.

5.6.-Banaketa horizontalik ez duten eta erregistro-finka bakarria izanik katastro-erreferentzia bakarria eta OHZren erreibo bakarria duten etxebizitzak, finka horretan elementu komun baterako edo kalerako irteera propioa dutela-eta aprobetxamendu independentea izan dezaketen hainbat bizitza daudenean, honako erregimena aplikatuko zaie, gainordain honen ondorioetarako soilik, Udal erroldaren arabera etxebizitza unitate independente gisa mantentzen den bitartean.

Lehenena.- OHZren kuota likidoa zatitu egingo da elementu komun baterako edo kalerako irteera propioa dutela-eta aprobetxamendu independentea izan dezaketen bizitzaren artean, bizitza bakoitzaren azaleraren arabera.

Bigarrena.- Ateratzen den kuota hori izango da dagoen bizitza bakoitzaren OHZren zerga-oinarria, gainordain honen ondorioetarako.

Hirugarrena.- Subjektu pasiboaren edo errentamendu edo erabilera-lagapen baten bidez hirugarren baten ohiko bizilekua ez diren bizitzak % 100eko gainordaina aplikatuko zaie, aurreko apartatuan deskribaturako kuota harturik oinarri.

Laugarrena.- Subjektu pasiboaren edo errentamendu edo erabilera-lagapen baten bidez hirugarren baten ohiko bizilekua diren etxebizitzak ez zaie inolako gainordainik aplikatuko.

5.7.-Hildakoen izenean dauden etxebizitzak. Salbuespena mantenduko da heriotza izan eta gehienez hurrengo bi urtez.

5.8.-Batuta dauden etxebizitzak, nahiz eta jabetza erregistroan bi finka izan eta bi ordainagiri eduki, baina ondasunen jabea bakarria izan behar da.

5.9.-Baserri hutsak: Beti ere baserria nekazaritza arloko ustiategiko errolda ofizialean altan balego.

5.10.-Eraiki duten promotoreen izenean dauden etxebizitzak. Salbuespena mantenduko da obra berria egin eta gehienez hurrengo bi urtez.

5.11.-Menpekotasun ebazpena jaso dutenak eta bere menpekotasuna dela eta beraien senitartekoak bere etxebizitza utzi beharra izan dutenak, beti ere soilik senitartekoa erroldatua azaltzen den azken etxebizitzari dagokiona.

5.12.-Errentan emandakoak 2015 eko urtarrilaren batean. Bai errenta kontratuak, baita urtarrilaren batetik salbuespen eskaera egiten den arteko alokairu ordainketen banketxeko agiriak ere, aurkeztu beharko dira. Kontratu hauen berri Foru Ogasunari emango zaio, jakinean egon dadin.

5.13.-2015eko urtarrilaren 1aren ondoren errentan emandako etxebizitzak, egiaztatzen baldin bada 2015ean 6 hilabete baino gehiagoan eduki direla errentan. Salbuespena egoera ziurtatzen den ekitaldian aplikatuko da. Alokairu-kontratua aurkeztu beharko da, alokairua ordaindu izanaren banku-agiriekin batera. Kontratu horien berri Foru Ogasunari emango zaio, badirela jakin dezan.

5.14.-Sortzapenaren aurreko ekitaldian eskuratutako etxebizitzak, urtebete baino gehiago igaro ez bada eskuratze-dataren eta biztanleen udal-erroldan alta ematen den egunaren artean.

IV. KUDEAKETA-ARAUAK

6. artikulua.

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utz daitezke zerga honi dagozkion kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskapeneko ahalmenak. Eskuordetze horren xedapenak, edukia eta norainokotasuna udalbatzak zehaztuko ditu, eta hitzarmena egingo da aldundiarekin.

2.- Udalbatzaren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

3.- -Ez da berandutza-interesik eskatuko, baldin eta subjektu pasiboak borondatezko epean eskatu ondoren, ordainketa geroratua edo zatikatua izatea onartu bada. Onura hori eskuratzeko, sortutako ekitaldian bertan egin beharko da zerga-kuotaren ordainketa.

V. HOBARIAK

7. artikulua

- a) Higiezina hirigintza, eraikuntza eta higiezinaren promozioko enpresen jardueraren xedeko higiezin bada —bai eraiki berria, bai eraikitzearen pareko eraberritzea izan duen eraikina— eta beren ibilgetuko ondasunekoak ez bada, hobari hauek aplikatuko dira zerga-kuota osoan, baldin eta interesatuek hala eskatzen badute obrak hasi baino lehen:

%90eko hobaria 3 urteko epean babes ofizialeko etxebizitzeari. Gainerako higieziari, %90ekoa lehen urtean, %80koa bigarren urtean eta %70ekoa hirugarren urtean.

- b) Subjektu pasiboak familia ugarietako titularrak badira, hobari bat izango dute zergan, seme-alaben kopuruari eta etxebizitzaren metro koadro erabilgarriei erreparatuta:

Metro koadro erabilgarriak	3 seme-alaba	4 seme-alaba	5 seme-alaba
90 metro arte	%25	%50	%75
90 metro baino gehiago eta 120 arte	%10	%25	%40

Azaldutako hobariak soilik ohiko bizilekuari aplikatuko zaizkio; halaber, titullarrek ezingo dira beste ondasun higiezin baten jabe izan, beti ere ondasun honek 42.009,32 €tik gorako balio katastrala badu.

Urtarrilean eskatu beharko zaio hobaria udalari, eta eskaerarekin batera familia ugarietako titulua aurkeztu beharko da.

Familia ugarietako kideetako batek elbarritasun bat edo lan egiteko ezintasun bat aitorturik izanez gero, familia unitateko umeen kopuruaren arabera egokitu lekiokkeen hurrengo mailako hobaria baliatu ahal izango du.

Udalak aztertuko du familia ugarietako kide guztiak ohiko etxebizitzan erroldatuak dauden urtarrilaren batean. Honez gain, ziurtatuko da zergadunak udal zorrik ez duela.

- c) Zerga-kuota osoan %25eko hobaria izango dute babes ofizialeko etxebizitzara egin berriek eta bai proiektuan eta bai erregistroan haiekin lotuta dauden garajeei eta trastelekuei, behin betiko kalifikazioa eman ondoren eta 2 urteko epean.

Subjektu pasiboak hobari bat baino gehiago izateko eskubidea izango balu, bakarrik aplikatuko zaio, onuragarriena.

VI. AZKEN XEDAPENA

Udalbatza osoak 2013ko urriaren 30ko bilkuran onartu zituen azaldutako ordenantza fiskala eta eranskinean jasotako zerga-tasak (azken horiek

ordenantzaren barruan sartzen dira). Ordenantza 2014ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta halaxe jarraituko du harik eta aldatzen edo indargabetzen den arte.

2013ko urriaren 30ean onartu zen behin betiko Ondasun higiezin gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala, eta haren zati dira Eranskin honetan jasotako zerga-tasak.

5 eta 7 artikulua 2014ko abenduaren 15eko Osoko Bilkuran onartu ziren eta 2015eko urtarrilaren 1an sartuko dira indarrean.

ERANSKINA

Zerga-tasa hauek aplikatuko dizkie Ondasun Higiezin gaineko Zergak hiri-ondasunei:

Ehuneko 0,2253 bizitegi-izaerako hiri-ondasunei.

Ehuneko 0,4782 industria-izaerako hiri-ondasunei.

Ehuneko 1,0233ko zerga-tasa aplikatuko die Ondasun Higiezin gaineko Zergak landa-ondasunei.

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEN ZERGA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Udal honek Ordenantza Fiskal honetan jasotako koefiziente eta indizeak finkatu ditu hurrengo xedapen hauetan aurreikusitako ahalmenez baliatuta: uztailearen 5eko 13/1989 Foru Arauko 10. eta 11. artikulua (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko foru-araua da) eta apirilaren 5eko 7/1991 Foru Arauan adierazitako azken xedapena (Premiazko Erabaki Fiskalak hartzeko foru-araua da).

II. KUOTA MINIMOEN PONDERAZIOA

2. artikulua.- Zerga honen tarifetan foru-aldundiak finkatutako kuota minimoek, udalerrri honetan zergapetutako jardueretan, 1. ERANSKINEKO aplikazio tauletan adierazten den ponderazio-koefizientearen gehikuntza izango dute.

Apartatu honetan aipatzen den koefizientea aplikatzearen ondorioetarako, eragiketa bolumena subjektu pasiboak egindako jarduera ekonomiko guztiei dagokiena izango da, eta foru arau honek 5.1.c) artikuluan dioen eran kalkulatu da.

3. artikulua.- Ordenantza honetako 2. artikuluan ezarritako koefizientea aplikatzeagatik aldatutako kuotak gehituko dira 2.ERANSKINEAN araturiko koefizienteekin.

4. artikulua.- lokalak udalerrriaren barruan duen kokapen fisikoa ponderatuko du, kokatuta dagoen kalearen kategoria kontuan hartuz. Honela 2. eta 3. atalak aplikatzeagatik aldatutako kuotei 3.ERANSKINEAN azaltzen diren eskala indizea aplikatuko zaie.

5. artikulua.- Ordenantza honetako 3 eta 4. artikuluan ezarritako gehikuntza-koefizientea eta kokamendu indizeari ez zaie aplikatuko ez kuota probintzialesi eta estatukoari, ezta foru-errekarguari ere.

III. ZERGA-KUOTA

6. artikulua.- Zerga honi dagokion kuota honela eratzten da: tarifek finkatzen dituzten kuota minimoari ordenantza honetako 2,3 eta 4.artikuluen arabera dagozkien ponderazio koefiziente, koefiziente bakar eta kokamendu indizea aplikatuta.

IV.- HOBARIAK

7. artikulua.- Kuotaren 100eko 50ko hobaria, subjektu pasiboek gutxieneko udal kuota ordaintzen dutenean eta hobaria aplikatu aurreko lehen zergaldian jardueratik lortu duten errenta edo etekin garbia negatiboa denean. Baita ere ziurtatu behar dute nahiz eta etekin negatiboa eduki ez dutela pertsonaleko plantilla murriztu.

V. KUDEAKETA-ARAUAK

8 artikulua.

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utz daitezke zerga honi dagozkion kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskapeneko ahalmenak. Eskuordetze horren xedapenak, edukia eta norainokotasuna udalbatzak zehaztuko ditu, aldundiarekin hitzarmena eginda, hura indarrean jarri aurreko urtea hasi baino lehen.

2.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira erabaki eta hitzarmen horiek, haiek formalizatu ondorengo lehen seihilekoan. Halaber, aldizkari ofizial horretan argitaratuko da adierazitako hitzarmenen salaketa.

3.- Artikulu honetako lehen puntuan adierazitakoa betetzekoa izanda, foru-aldundiaren esku izango dira puntu horretan azaldutako eskumenak, kuota probintzialen eta estatuko esparruan.

VI. AZKEN XEDAPENA

Udalbatza osoak 2013ko urriaren 30eko bilkuran onartu zituen azaldutako ordenantza fiskala eta 1. ERANSKINEAN jasotako zerga-tasak (azken horiek ordenantzaren barruan sartzen dira). Ordenantza 2014ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Onartu zen, behin betiko, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ordenantza fiskala eta 1. ERANSKINEAN jasotako koefizienteak. Ordenantzaren zati da eranskina.

ERANSKINA

Bilkura-data: 2013ko urriaren 30ean

1.ERANSKINA

Honako taulan adierazten denaren arabera aplikatuko da ponderazio koefizientea:

Koefiziente hori taula honen arabera zehaztuko da: Eragiketa bolumena (eurotan)	Koefizientea
1.000.000,00 eta 5.000.000,00 euro bitartean	1,29
5.000.000,01 eta 10.000.000,00 euro bitartean	1,30
10.000.000,01 eta 50.000.000,00 euro bitartean	1,32
50.000.000,01 eta 100.000.000,00 euro bitartean	1,33
100.000.000,00 euro baino gehiago	1,35
Eragiketa bolumenik gabe	1,31

2.ERANSKINA

Finkatutako kuota minimoen gehikuntzako koefiziente bakarra: 2,1961

3.ERANSKINA

Udalerriko bide publikoen sailkapena:

Kategoria bakarra 1.

Indizea:1

HIRI-LURREN BALIO-GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.

Lurralde historikoko toki-ogasunak arautzen dituen foru-arauak eta zergaren foru-arau zehatzak araututakoari jarraiki, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga ezartzen eta biltzen du udal honek, ordenantza honek araututakoa betez. Ordenantza honen zati da bere eranskina, aplikagarri diren ehunekoen eta tarifen taula jasotzen duena.

2. artikulua.

Udalerri osoan aplikatzen da ordenantza.

II. ZERGA-EGITATEA

3. artikulua.

1.- Hiri-izaerako lursailen batek izan dezakeen balio gehikuntza da zerga egitate, lursailaren jabetza edozein tituluren bidez transmititzen denean edo haren gainean jabetza mugatzen duen edozein gozamen-eskubide erreal eratzten edo transmititzen denean, gehikuntza hori ageri jartzen bada.

2.- Zergaren eragin-esparruan, hiri-lurrak izango dira:

- Hiri-lurzorua; urbanizagarria; urbanizagarri programatua; urbanizagarri programatu gabea, hari eragiten dion hirigintza-jarduerako programa bat onartzen denetik aurrera; bide zolatatuak edo espaloi zintarriak dituzten lurrak, horrez gain, estolderiak, ur-hornidura, argindar-hornidura eta argiteria publikoa badute; eta hiri-izaerako eraikinek okupaturako lurrak.

Hiri-lur izango dira, halaber, nekazaritza-legediak araututakoa urratuz zatitutako lurrak; betiere, zatiketa horrek haren nekazaritza-erabilera desitxuratzen badu; hala ere, horrek ez du lur horien landa-izaera aldatzen, zerga honen aplikaziotik kanpora.

III. ZERGARI EZ LOTUAK

4. artikulua.

1.- Ez dira zerga honi lotuko landa-lurrek izandako balio-gehikuntzak.

2.- Zerga honen eragin-esparruan, landa-ondasun higiezinak izango dira:

aurreko artikuluko 2. epigrafeak hiri-lurtzat jotzen ez dituen lurrak.

IV. SALBUESPENAK.

5. artikulua.

1.- Balio-gehikuntzaren gaineko zerga hau ordaintzetik salbuetsita izango dira pertsona eta entitate hauek:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, lurralde historikoko administrazioa eta horien erakunde autonomiadunak, administrazio-izaerakoak.

b) Udalerria, udalerriko toki-entitateak eta udalerria kideztat duten toki-entitateak eta horien guztien erakunde autonomiadunak, administrazio-izaerakoak.

c) Ongintzako edo ongintza eta irakaskuntzako sailkapena duten erakundeak.

d) Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileak eta legediari jarraituz eratutako mutualitateak eta montepioak.

e) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan salbuespena aitortu zaien pertsona eta entitateak.

f) Itzuli beharreko emakida administratiboen titularrak, emakidak ukitzen dituen lurrei dagokienez.

g) Gurutze Gorria eta antzeko entitateak, lurralde historikoko administrazioak hala xedatzen duenean.

2.- Halaber, zerga ordaintzetik salbuetsita izango dira honako ekintza hauen ondorioz gertatutako balio-gehikuntzak:

a) Ezkontza-sozietateari egindako ekarpenak.

b) Ondasun higiezinak ezkontideen artean eskualdatzea eta esleitzea, ondasunak eta eskubideak ezkontza-sozietatera ekartzen badituzte eta haien ondasun komunak ekartzen badituzte.

c) Ezkontideek ondasun higiezinak eskualdatzea seme-alaben alde, ezkontzaren deuseztasuna, banantzea eta dibortzioa erabakitzen duten sententziak betetzeko.

d) Zor-eskubideak eratzea eta eskualdatzea.

V. SUBJEKTU PASIBOAK

6. artikulua.

1.- Zergaren subjektu pasibo dira:

a) Lurren transmisioetan edo irabazi gisaz jabetza mugatzen duten gozamen-eskubide errealen eraketa edo transmisioetan, lursaila eskuratzen duen pertsona edo eskubide erreala eratzen zaion edo transmititzen zaion pertsona.

b) Lurren transmisioetan edo jabetza mugatzen duten kostubidezko gozamen-eskubide errealak eratu edo eskualdatzean, lursailaren transmititzailea edo eskubide erreala eratzen duen edo transmititzen duen pertsona.

2.-Pertsona fisiko edo juridikoa, edo Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3. apartatuan aipatutako entitatea, nahiz eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen zaiona, zergadunaren ordezkotako subjektu pasibo izango da baldin eta zergaduna Espainian egoitzarik ez duen pertsona fisiko bat edo entitate bat bada, ordezkaria izendatzeko obligaziorik ez badu, edo obligazio hori edukita, ordezkariak solidarioki erantzuten ez badu ordezkatuaren zerga zorra ordaintzeko obligazioari dagokionez.

3. Lurra ohiko etxebizitzaren hipoteka betearazteagatik eskualdatzen direnean, haiek eskuratzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, edo Zergen Foru Arau Orokorreko 35.3 artikuluan aipatzen den entitatea hartuko da zergadunaren ordezkotako subjektu pasibotzat.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, ordezkotako ezingo dio zergadunari exijitu ordaindutako obligazio tributarioaren zenbatekoa.

Apartatu honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzat hartuko da abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 90.8 artikuluan halakotzat definitutakoa.

4. martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuak, baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzkoak, 2. artikuluan ezarritakoan sartzen diren zordunek euren etxebizitza zorren ordainez emateagatik egindako eskualdaketetan, ondasun higiezinak eskuratzen duen entitatea izango da zergadunaren ordezkotako subjektu pasiboa, eta ordezkotako ezin izango dio zergadunari exijitu ordaindutako zerga obligazioen zenbatekoa.

VI. ZERGA-OINARRIA.

7. artikulua.

1.- Hiri-lurrek zergaren sortzapen unean eta gehienez hogeitun urteko epealdian izandako balio-gehiak erreala da zerga honen zerga-oinarria.

2.- Gehiak errealaren zenbatekoa zehazteko, Eranskinean jasotako eskalan adierazitako ehunekoak aplikatuko zaio lursailak zergaren sortzapen-unean duen balioari.

3.- Artikulu honetako bigarren epigrafeak adierazitako ehunekoak zehazteko, arau hauek aplikatuko dira:

Lehena.- Zergak kargatzen duen eragiketa bakoitzaren balio-gehikuntza artikuluko honetako 2. zenbakian finkatutako urteko ehunekoaren arabera zehaztuko da; gehikuntza agerian egon den urte-kopurua biltzen duen epealdirako izango da ehuneko hori.

Bigarrena.- Sortzapen-unean lurraren balioaren gain aplikatu beharreko ehunekoa hau izango da: kasu konkretu bakoitzari aplikagarri zaion urteko ehuneko balio-gehikuntza agerian egon den urte-kopuruaz biderkatzetik ateratzen dena.

Hirugarrena.- Lehen arauarekin bat eragiketa jakin bakoitzari aplikagarri zaion ehunekoa zehazteko eta bigarren arauarekin bat aipatutako urteko ehunekoa biderkatu beharreko urte-kopurua zehazteko, balio-gehikuntza agerian egon den aldia osatzen duten urte osoak baino ez dira izango kontuan; hala ere, aipatutakoaren eraginetarako, aldi horretako urteen zatikiak ez dira kontuan izango.

8. artikulua.

Lursailen eskualdaketak gertatuz gero, zergaren sortzapen-uneako balioa izango da ondasun higiezinaren gaineko zergaren baitan halakotzat jotzen dena.

9. artikulua.

1.- Jabetza mugatzen duten gozamen-eskubide errealak eratzean eta eskualdatzean, Eranskinean agertzen diren urteko portzentajeak aurreko 7. artikuluan definitutako atalaren gain aplikatuko dira. Hark, Ondare Transmisio eta Egintza Jurídiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondorioetarako finkatutako arauen aplikazio bidez kalkulaturako eskubideen balioa adierazten du.

2.- Eraikin edo lursail baten gainean solairu bat edo gehiago eraikitzeo eskubidea edo eraikuntza-lurraren azpian egiteko eskubidea eratzean edo transmititzean gainazalean ondasun-eskubiderik sortu gabe, urteko portzentajeen taula aplikatuko da 7. artikuluan definitutako balioaren gain, transmisio-eskrituran finkatutako proportzionalitate-moduluari erreparatuta. Halakorik ez balego, lur gainean edo lur azpian eraikitzeoak diren solairuen azalera edo bolumenaren eta haiek eraiki ondorengo azalera edo bolumen osoaren arteko proportzioa ezartzetik ateratzen den proportzionalitatea.

3.- Nahitaezko desjabetzerik gertatzen bada, urteko portzentajeen taula aplikatuko zaio (Eranskinean jasoa), lursailaren balioari dagokion balio justuaren zatiari.

VII. ZERGA-KUOTA

10. artikulua.

Zerga-oinarriari Eranskinean adierazitako zerga-tasa aplikatuta lortuko da zerga-kuota.

VIII. ZERGAREN SORTZAPENA

11. artikulua.

1.- Zerga ordaintzeko betebeharra sortuko da:

a) Lurraren jabetza doan edo kostubidez eskualdatzen denean, bizien artean edo heriotzagatik, transmisio-egunean.

b) Jabetza mugatzen duen edozein gozamen-eskubide erreal eratzen edo eskualdatzen denean, eraketa edo transmisioa gertatzen den egunean.

Hauek izango dira, aurreko epigrafeen baitan, transmisio-datak:

a) Bizien arteko egintza edo kontratuetan, agiri publikoa ematen denekoa eta, dokumentu pribatuak badira, haiek erregistro publikoan inskribatzen direnekoa edo duen ofizioagatik funtzionario publiko bati ematen zaionekoa.

b) Heriotzagatiko eskualdaketetan, heriotza-eguna.

2.- Ebazpen judicial edo administratibo irmoaz lurraren eskualdaketa edo haren gaineko gozameneko ondasun-eskubidearen eraketa edo eskualdaketaren egintza edo kontratuaren deuseztasuna, deuseztapena edo iraungipena gertatu dela aitortu izan bada, subjektu pasiboak ordaindu duen zergaren itzulketa eskubidea izango du; betiere, egintza edo kontratu horrek irabazpiderik eman ez badio eta itzulketa ebazpena irmo hartu zenetik bost urteko epearen barruan eskatu izan badu. Interesatuak Kode Zibilaren 1295 artikulua aipatzen dituen elkarrekiko itzulketak egin behar dituztenean, irabazpidea dagoela iritziko da. Nahiz eta egintzak edo kontratuak irabazpiderik sorrarazi ez, deuseztapena edo iraungipena zergaren subjektu pasiboak dituen betebeharrak ez betetzearen ondorio izan bada, itzulketarik ez da izango.

3.- Kontratua kontratugileen adostasunez geratzen bada eraginik gabe, ez da ordaindutako zerga itzuliko, eta tributuak ordaindu behar dituen egintza berritatz hartuko da. Bat etortzea kontziliazio-ekitaldian iritziko da.

4.- Baldintzaren bat duten egintza edo kontratuetan, haien kalifikazioa Kode Zibileko aginduen arabera egingo da. Etendurazkoa balitz, zerga ez litzateke likidatuko harik eta hura bete arte. Baldintza deuseztapenezkoa balitz, zerga galdatu egingo litzateke noski; eta baldintza betetzean aurreko ataleko arauari jarraituz egingo litzateke itzulketa.

IX. KUDEAKETA

12. artikulua.

Zergagatik dagokien aitortpena udal-administrazioan aurkeztu beharra daukate subjektu pasiboek. Aitortpena udal-administrazioak berak eskainiko duen ereduan egingo da. Aitorpenean, kuota ezartzeko beharrezko eta ezinbesteko diren

datuak eta zerga zerrendako elementuak azalduko dira. Aipatu kuotaren ordainketa aitortpena aurkezten den une berean ordaindu beharko da.

13. artikulua.

Hurrengo lerroetan adierazitako epeetan aurkeztu beharko da aitortpena eta hark adierazitako kuota ordaindu. Zergaren sortzapen-datatik aurrera zenbatuko da epea.

a) Bizien arteko egintzen ondorio bada, 30 egun balioduneko epea izango da.

b) Heriotzagatiko egintzak izanez gero, sei hileko epea izango da, baina urtebeteraino luza daiteke, subjektu pasiboak hala eskatzen badu.

14. artikulua.

1.- Deklarazioarekin batera, ezinbestean aurkeztu beharko da zerga-azarpenaren sorrerako egintzen edo kontratuen agiriak, behar bezala kautotuak.

2.- Agiri bidez kreditatu beharko dira, halaber, eskatutako salbuespen edo hobari oro.

15. artikulua.

Udal-administrazioak interesdunei errekeritu ahal izango die Zergaren likidazioa burutzeko beharrezko irizten dituen agiriak aurkez ditzaten hogeita hamar eguneko epean (interesatuak eskaturik beste hamabost egun luza daitekeelarik aipatu epealdia). Eskatutako dokumentuak beharrezkoak badira aitortpena egiaztatzeko, egindako errekerimenduei jarritako epeen barnean ez erantzuteak zerga-urraketa eta dagokion santzioa dakartza. Esandako agiri horiek interesatuak berak (bere onurarako bakarrik) alegaturiko gorabeherak egiaztatzeko direnean, errekerimenduari ez erantzuteak, likidazioa egiaztatu gabeko alegazioak kontutan hartu gabe egitea ekarriko du.

16. artikulua.

12. artikulua xedatutakoa betetzeko izanda, honako pertsona hauek subjektu pasiboen epe berdinetan jakinarazi beharko diote udal-administrazioari zerga-egitatea gertatu izana:

a) Ordenantza fiskal honen 6. artikuluko a) letran jasotako egoeretan, dohaintza-egileak edo eskubide erreala eskualdatzen duen pertsonak, negozio juridikoa bizien artean egin bada.

b) Ordenantza fiskal honen 6. artikuluko a) letran jasotako egoeretan, eskuratzailleak edo eskubide errearen eraketaren edo eskualdaketa hartzailleak.

17. artikulua.

Era berean, notarioen eginbeharra da udal-administrazioaren eskuetan jartzea urteko hiruhileko lehen hamabostaldian, aurreko hiruhilekoan baimendu dituzten agiri guztien zerrenda edo indize laburtua, hain zuzen ere udalerrian zerga honen zerga-egitatea gauzatu izana adierazten duten egintza, egitate edo negozio juridikoak jasotzen dituztenena, azken nahiaren egintzak izan ezik. Epe berean, notarioek udal-administrazioaren eskuetan jarri behar dute honako zerrenda hau: sinadurak ezagutzeko edo legitimatzeko aurkeztu zaizkien egintza, egitate edo negozio juridikoak jasotzen dituzten dokumentu pribatuena. Artikulu hau Lurralde Historikoko Zerga Arau Orokorrean xedatua dagoen lankidetzazko eginbehar orokorraren kalterik gabe ulertu behar da.

18. artikulua.

1.- Aitortu izan ez zaizkion zerga-egitateak gertatu izanaren berri badu udal-administrazioak, 13. artikuluan aipatzen diren epeen barruan, interesatuei errekerimendua egingo die aitortpena egin dezaten, zerga-urraketa adierazteko eta, hala balitz, dagozkien zehapenak ezartzeko aukerari eutsiz.

2.- Udal-administrazioak aipatu errekerimenduak bideratu eta interesatuek dagokien aitortpena aurkezten ez badute, ofiziozko espedientea izapidetuko da, administrazioak eskura dituen datuekin. Era berean, dagokion likidazioa egingo da, eta, balegokio, bidezko baliabideen adierazpen eta sarrerak egiteko epeak jarriko dira, egindako edo egin daitezkeen zerga-urraketa adierazteko eta ondoriozko zehapenak ezartzeko aukerari eutsiz.

19. artikulua.

Ezingo da Jabetza Erregistroan inskribatu lursailen eskualdaketako eta gainerako agiririk, aurretiaz ez bada kreditatzen zerga hau ordaindu dela edo kuoten ordainketa geroratu dela.

20. artikulua.

Zerga-alorreko Foru Arau Orokorrak xedatutakoa beteko da ordenantza honek araututako zerga kitatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko, bai eta zerga-arauen urraketak kalifikatzeko eta horiei dagokien zehapenak erabakitzeke ere.

X. XEDAPEN GEHIGARRIA

9.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako eta Ondare Transmisio eta Ekintza Juridiko Dokumentatuei buruzko Zerga onesten duen Foru Arauak indarrean dirauen bitartean, honako arau hauek bete beharko dira:

1. a) Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balioaren proportzioan egingo da, urtebeteko epealdiko ehuneko bia, ehuneko hirurogeita hamarra gainditu gabe.

b) Bizi arteko gozamen-eskubideen kasuan, balioa ondasunen balio osoaren %70ekoa dela iritziko da gozamendunak 20 urte baino gutxiago baditu, eta

hori gutxituz joango da adina handituz doan heinean urte bakoitzeko ehuneko 1eko proportzioan, balio osoaren ehuneko 10eko mugarekin.

c) Pertsona juridikoen alde eraturako gozamen-eskubideetan, 30 urtetik gorako epe baterako edo epe zehaztugaberako eratzten badira gozamenak, suntsiarazpen-baldintzapeko jabetza osoaren eskualdaketatzat joko dira.

2. Jabetza soileko lursailaren balioa gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren arteko kendura izango da. Aldi baterako diren biziarteko gozamenetan jabetza soila baloratzeko, aurreko bat zenbakiko arauetatik balio gutxien ematen diona aplikatuko da.

3. Erabilera eta bizitoki eskubide errealeen balioa ezartzeko, aldi baterako gozamen edo gozamen biziartekoen —kasua zein den— balorazioari dagozkion arauak horiek ezarriak izan zireneko ondasunen balioaren %75ari aplikatuko zaizkio.

XI. AZKEN XEDAPENA

Udalbatzak 2013ko urriko 30eko bilkuran onartu zuen ordenantza fiskal hau eta bere eranskina, eta 2014ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean. Indarrean iraungo du harik eta hura aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

2013ko urriaren 30ean onartu zen behin betiko Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren ordenantza fiskal arautzailea, eta haren baitan kokatzen dira eranskineko ehunekoen eta tarifen taulak.

ERANSKINA

Bilkura-data: 2013ko urriak 30

I. EHUNEKOEN TAULA.

EPEA	URTEKO EHUNEKOA
a) 1 urtetik 5era.....	%3,1
b) 10 arte	%2,8
c) 15 arte	%2,7
d) 20 urte arte	%2,7

II.TARIFA

ZERGA-TASA

%6,8524

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak ezarritakoari jarraiki, ordenantza honek araututako moduan ezartzen eta galdatzen du Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga.

2. artikulua.

Udalerrri osoan aplikatuko da ordenantza hau.

II. ZERGA-EGITATEA

3. artikulua.

Edozein eraikuntza, instalazio edo obra egiteagatik, horretarako obra edo hirigintza lizentzia jasotzea exijitzen denean, lizentzia hori jaso edo ez, edo erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu beharra dagoenean, baldin eta lizentzia ematea edo kontrol jarduera egitea zerga aplikatzen duen udalari badagokio.»

4. artikulua.

Zerga hau sortzen duten ekintzen zerrenda adierazpenezkoa da hau (ez da, beraz, zerrenda itxia):

- 1.- Solairu berriko eraikuntzei eta instalazioei dagokien solairu berriko obrak.
- 2.- Edozein eraikin edo instalazio handitzeko obrak.
- 3.- Edozein eraikuntza edo instalazioren egitura uki dezakeen aldaketa- edo erreforma-obra oro.
- 4.- Edozein eraikuntza edo instalazioren kanpo-itxura aldatzeko edo birgaitzeko obra oro.
- 5.- Eraikinen barne-banaketa aldatzeko obrak, horiei emandako erabilera edozein dela ere.
- 6.- Aldi baterako obrak, Lurzoruaren Legeko 58. artikulua araututakoak.
- 7.- Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.
- 8.- Lur-erazketak, lauketak, indusketa eta lurreztatze erako lur-mugimenduak, salbuespen hauekin: onartutako edo baimendutako Urbanizazio edo Eraikuntza Proiektu bat gauzatzeko obrak.

9.- Eraikuntzak botatzea, hur-hurreko aurri-deklarazioen kasuan izan ezik.
10.- Lurrazpiko instalazioak, besteak beste erabilera hauek dituztenak: aparkalekuak; industria-, merkataritza- edo lanbide-jarduerak, zerbitzu publikoak edo lurpeari emandako beste edozein erabilera.

11.- Propaganda-kartelak jartzea, haiek bide publikotik ikus badaitezke.

12.- Gaitasun ekonomikoa erakutsi eta baliabide ekonomikoen inbertsioa eskatzen duten obra, eraikuntza edo instalazioak, baldin eta obra edo hirigintzako baimena izatea beharrezko badute.

III. ZERGARI EZ LOTUAK

5. artikulua.

1.- Jabari titularitatea Udalarena duten higiezinetan egin daitezkeen obra, eraiketa edo instalazioak ez dira egongo zerga honi lotuta, obraren jabea Udala bera bada.

2.- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaintzetik salbuetsita daude, Estatuaren, Autonomia Erkidegoen, Lurralde Historiko edo Entitate Lokalen jabetzako eraikuntza, instalazio edo obrak, zerga dagokienak, helburu hauek dituztenean: errepideak, trenbideak, portuak, aireportuak, obra hidraulikoak, herrietako saneamendua eta herrietako hondakin-uren saneamendua, nahiz eta gestioa Erakunde Autonomiadunen eskuetan egon, inbertsio berriko obrak izan nahiz kontserbaziokoak.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

6. artikulua.

1.- Eraikuntza, instalazio edo obraren jabe diren pertsona fisiko, pertsona juridiko eta Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3. apartatuan aipatzen dituen entitateak dira, zergadun gisa, zerga honen subjektu pasiboak, haiek egiten diren ondasun higiezinaren jabeak izan edo ez.

2.- Aurreko paragrafoan ezarritako ondorioetarako, lanek sortarazten dituzten gastuak edo kostua jasaten dituen izango da eraikuntza, instalazio edo obraren jabea.

7. artikulua.

1.- Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez duenean, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira lizentziak eskatzen dituztenak, erantzukizuneko aitortzen edo aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak.

Ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa exiji diezaioke ordezkotzat zergadunari.»

2.- Udal-administrazioak aukera izango du zergadunaren ordezkotzat eskatzeko jakinaraz dela zein den zergadun-izaera duen pertsonaren edo entitatearen izena eta helbidea.

V. ZERGA-OINARRIA

8. artikulua.

1. Eraikuntza, instalazio edo obraren egiazko kostu eraginkorrak osatzen du zergaren oinarri ezargarria, eta, ondorio horietarako, egiazko kostu eraginkorra gauzatze materialaren kostua da.

BEZa eta antzekoak diren gainerako zergak, tasak, prezio publikoak eta tokiko izaera publikoa duten bestelako ondare-prestazioak, profesionalen ordainsariak eta kontratistaren enpresa-irabazia ez dira oinarri ezargarriaren osagarriak, ez eta gauzatze materialaren kostuak zorrozki barnean hartzen ez duen beste edozein kontzeptu.

VI. ZERGA-KUOTA

9. artikulua.

Zerga-oinarriari Eranskinean adierazitako zerga-tasa aplikatuta lortuko da zerga-kuota.

VII. SORTZAPENA.

10. artikulua.

Eraikuntza, instalazioa edo obra hastean sortuko da zerga, haiei dagokien lizentzia eman gabe badago ere.

VIII. KUDEAKETA

11. artikulua.

1.- Lizentzia eman edo erantzukizunezko aitortpena zein aurretiazko komunikazioa aurkezten bada, edo, lizentzia oraindik eskatu, eman edo ukatu gabe egonik edo aitortpena zein komunikazioa oraindik ez aurkezturik, eraikuntza, instalazio edo obra hasten bada, konturako behin-behineko likidazio bat egingo da, oinarri ezargarria honela kalkulatuta:

a) Interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, betiere kasuan kasuko elkargo ofizialak hura bisatu badu, baldintza hori nahitaezkoa denean.

b) Ordenantza fiskalak propio ezarritako indize edo moduluen arabera, ordenantza

horrek hala ezartzen duenean.

12. artikulua.

Obrak, instalazioak edo eraikuntzak udal-lizentziarik gabe hasi badira, udal-teknikari eskudunek finkatuko dute zerga-oinarria, eta hari erreparatuko zaio behin-behineko likidazioa egiteko.

13. artikulua.

Lizentzia eman ondoren, hasierako proiektua aldatzen bada, behin-behineko likidazio berria egiteko aurrekontu berria aurkeztu beharko da; proiektu aldatuaren arabera, lehenbiziko likidazioaren zenbatekoa gainditzen duen kopuruaz.

14. artikulua.

1.- Benetan egindako eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta euren benetako kostua ikusiz, udal-administrazioak, bidezko administrazio-egiaztapena eginda, aldatu egingo du, egoerak hala eskatzen badu, oinarri zergagarria, bidezko behin betiko likidazioa eginez eta dagokion zenbatekoa subjektu pasiboari eskatuz edo, beharrezkoa bada, itzuliz.

2.- Aurreko atalean xedatuaren ondoriotarako, obra bukatu edo behin-behineko onartu eta ondorengo lehen hilabetearen barruan, zirkunstantzia honen aitortzea aurkeztuko da udal-administrazioak jarriko duen inprimakian, obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiriarekin, ahal denean dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsita, non ziurtatuko den obraren kostu osoa, bertan sartuz zuzendaritzaren eta proiektuaren eskubide fakultatiboak, etekin industrialak eta obraren ondoriozko beste batzuk.

15. artikulua.

Zerga-alorreko Foru Arau Orokorrak xedatutakoa beteko da ordenantza honek araututako zerga kitzatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko, bai eta zerga-arauen urraketak kalifikatzeko eta horiei dagokien zehapenak erabakitzeke ere.

16. artikulua.

Autolikidazio-erregimenean eska dezake udalak zerga hau.

17. artikulua.

Lizentzia baten titularrak uko egiten badio berriaz eta idatziz baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak egiteari, udalak itzuli edo erabat suntsiaraziko du behin-behineko likidazioa.

18. artikulua.

Lizentziaren bat iraungiz gero, udalak itzuli edo suntsiarazi egingo du likidazioa, baldin eta lizentziaren titularrak hura berritzeko eskatu eta udalak onartu egiten badio luzapena.

19. artikulua.

Zergen kudeaketa, likidazio eta ikuskapeneko ordenantza fiskal orokorrak xedatutakoari jarraiki kudituko, likidatuko, ikuskatuko eta bilduko da zerga hau.

20. artikulua.

Zergen kudeaketa, likidazio eta ikuskapeneko ordenantza fiskal orokorrak xedatutako urraketa- eta zehapen-erregimena aplikatuko da.

21. artikulua.*

Ezabatuta.

XI. HOBARIAK

22. artikulua.

A) Ehuneko 95 arteko hobaria izango dute interes bereziko edo udal-onurako adierazpena jaso duten eraikuntzek, instalazioek eta obrek. Adierazpen hori lortzeko, horiek guztiek hainbat baldintza bete beharko dituzte kultura, historia, arte edo enpleguaren sustapenaren arloetan. Udalbatza Osoa izango da adierazpena ematen duena, eta kide guztien gehiengo soilak onartua izango da, betiere subjektu pasiboak alde aurretik hala eskatzen badu. Kontuan hartuko da beti Udalbatza une bakoitzean zer egoera ekonomiko eta finantzariotan dagoen.

B) Ehuneko 90eko hobaria izango dute birgaitze integratuko obrek, baldin eta Eusko Jaurlaritzak kalifikazio hori eman badie.

C) Ehuneko 95 arteko hobaria izango du babes publikoko etxebizitzaren eraikuntzak.

D) Ehuneko 95eko hobaria emango zaie Azkoitia udalerriko baserrietan, eta baita nekazaritza eta abeltzaintzako zein baratzetako ustiapenari lotuta dauden gainerako eraikuntzetan ere, egiten diren eraikuntza- eta instalazio-lanei zein obrei, eta, baita ere, baserri-eraikin berriak nahiz nekazaritza eta abeltzaintzako edo baratzetako ustiapenari lotutako bestelako eraikuntza berriak egiteko lanei. Eragin horietarako, baserria izango da nekazaritzako, abeltzaintzako edo baratzeko ustiapen bati lotuta dagoen bizitzeko eraikina, baldin eta lurzuari eta hirigintzari buruzko legerian nahiz legeria hori garatzen duen araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Nolanahi ere, atal honetan arautzen den hobariak gozatu ahal izateko, ustiapenaren titularra nekazari edo abeltzain profesionala izan beharko da, eta Gizarte Segurantzako nekazaritza erregimenean alta izan beharko du (autonomoak).

E) Ehuneko 50eko hobaria emango zaie Azkoitia udalerriko baserrietan, eta baita nekazaritza eta abeltzaintzako zein baratzetako ustiapenari lotuta dauden gainerako eraikuntzetan ere, egiten diren eraikuntza- eta instalazio-lanei zein obrei, eta, baita ere, baserri-eraikin berriak nahiz nekazaritza eta abeltzaintzako edo baratzetako ustiapenari lotutako bestelako eraikuntza berriak egiteko lanei. Eragin horietarako, baserria izango da nekazaritzako, abeltzaintzako edo baratzeko ustiapen bati lotuta dagoen bizitzeko eraikina, baldin eta lurzuari eta hirigintzari buruzko legerian nahiz legeria hori garatzen duen araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Nolanahi ere, atal honetan arautzen den hobariak gozatu ahal izateko, ustiapena Nekazaritza Ustiapenen Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko da. Atal honetatik kanpo geratuko dira baso-ustiapen hutsak direnak.

F) Ehuneko 95eko hobaria izango dute etxebizitza eraikinetako teilatuak konpontzeko lanek eraikin horietako fatxadak birgaitzeko lanek.

G) Ehuneko 95eko hobaria izango dute denda txikietan egindako obrek, baldin eta denda horiek alde zaharrearantz kokatuta badaude.

H) Ehuneko 95eko hobaria izango dute beroa edo eguzki-energia elektrikoa aprobetxatzeko egiten diren eraikuntzek, instalazioek eta obrek. Hobari horiek eskuratzeko, eskumena duten administrazioek homologatutako biltzaileak izan beharko dituzte beroa sortzeko instalazioek.

I) Ehuneko 95eko hobaria izango dute desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun- eta bizigarritasun-baldintzak hobetzeko egiten diren eraikuntzek, instalazioek eta obrek.

J) Ehuneko 95eko hobaria izango dute Aizkibel 2 kaleko etxebizitzaren birgaitzeko obrak, sutearen ondorioz sortu direnak, hain zuzen.

Zergadunak hobari bat baino gehiago jasotzeko eskubidea duenean, hobari bakar bat emango zaio, betiere onuragarriena dena.

XI. AZKEN XEDAPENA

Udalbatzak 2013ko urriaren 30ean bilkuran onartu zuen ordenantza fiskal hau eta bere eranskina, eta 2014ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean. Indarrean iraungo du harik eta hura aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Urriaren 30ean onartu zen behin betiko Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzeko ordenantza fiskala eta haren baitan kokatzen den eranskina.

* 21 artikulua hau 2014ko azaroaren 27ko Osoko Bilkuran onartutako zergen eta toki zuzenbide publikoko beste dirusarreraren batzuen kudeaketa eta bilketa arautzen duen Ordenantza orokorrak ezabatu du, GAO n iragarri eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean. (GAO 2015/01/26).

ERANSKINA

Bilkura-data: 2013ko urriaren 30a.

ZERGA-TASA:%5

UDAL-JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

1. artikulua.

Lurralde historikoko toki-ogasunak arautzen dituen foru-arauak araututakoari jarraiki, udal-jabari publikoko ondasunen erabilera pribatua edo era bereziren batean ustiatzeagatik tasak ezartzen eta biltzen du udal honek, ordenantza honek araututakoa betez. Ordenantza honen zati da bere eranskina, aplikagarri diren tarifak jasotzen dituena.

2. artikulua.

Udalerrri osoan aplikatzen da ordenantza.

3. artikulua.

Administrazio publikoek ez dute tasarik ordainduko zuzenean esplotatzen diren komunikazio-zerbitzu publikoekin lotutako ustiapengatik, ez eta herritarren segurtasunerako edo defentsarako garrantzitsuak diren ustiapengatik ere.

4. artikulua.

Lizentzien hartzaileek ordaindu beharko dituzte tasak, edo, hori ezinezkoa bada, ustiapenaren onurak jaso dituztenek.

5. artikulua.

1. Tasaren zenbatekoa eranskineko tarifen arabera kalkulatu da, kontuan hartuta zer erabilera- edo ustiapen-mota den eta zer kategoriatako bidetan edo leku publikotan egin den.

2. Kaleekin eta, oro har, udalerriko lekuekin, eranskinean jasotako sailkapena erabili behar da.

6. artikulua.

1. Erabilpenak edo ustiapenak udalerriko ondasunak kaltetzeko arriskua sortzen duenean, udal-administrazioak gordailu bat eskatuko du kalteak ordaintzeko beharrezko irizten duen zenbatekoarekin. Horrez gain, erabilerari edo ustiapenari dagokion tasa ordaindu beharko da.

2. Udal-administrazioak kaltetutako ondasunak lehengoratzeko edo konpontzeko eskatuko du, eta kalteak konponezinak baldin badira, haien balioa itzultzeko.

7. artikulua.

1. Udal-lizentzia bat beharko da gauzak edo elementuak instalatzeko, bai eta hasieran emandakoak aldatzeko, berritzeko, handitzeko edo txikitzeko ere. Behin ordenantza honetan araututako tasak ordaindutakoan soilik izango du balioa lizentziak, eta ordainketa egin arte ezingo da erabiltzen edo ustiatzen hasi.

2. Tasak ordaintzen ez badira, lizentzia baliogabetu egingo da automatikoki.

8. artikulua.

Ordenantza honetan araututako tasak ordaintzeak ez du esan nahi Era guztietako lizentziak eta baimenak emateagatik tasak arautzen dituen ordenantzakoak ordaindu behar ez direnik.

9. artikulua.

Udalak zehapen-erregimen bat ezarri ahal izango du lizentziarik gabe egiten diren erabilpen eta ustiapenentarako. Ordaindu egin beharko dira erabilpena edo ustiapena baimendua egongo balitz ordaindu behar izango liratekeen tasari dagozkion zenbatekoak, bai eta aplikagarri diren zehapenak edo bestelako erantzukizunak ere.

10. artikulua.

Baimenean ustiapenaren iraupena zehazten ez den kasuetan, baimena baja-aitorpena aurkeztu arte luzatuko da.

11. artikulua.

Behin gauzak edo elementuak kendutakoan, interesatuak behartuta daude erabilpenaren edo ustiapenaren baja-aitorpena aurkeztera udal-administrazioan. Adostasuna baldin badago, aurkeztutako hilabetearen hurrengo hilabetean hasiko da baja balioa izaten, eta une horretara arteko tasak aplikatuko zaizkio.

12. artikulua.

Ustiapenen edo instalazioen titulartasuna aldatzeko, udal-administrazioaren baimena lortu behar izango da aurrez. Horretarako, emakidadunak idatziz egin beharko du eskaera. Datu pertsonalak, titular berriaren helbidea eta ordenantza hau betetzeko beharrezko diren datuak bete beharko ditu. Udalaren baimenik gabe egindako titulartasun-aldaketek lizentzia baliogabetzea ekarriko dute, eta baimen berria eskatu beharko da.

13. artikulua.

Ustiapen berriak badira, ordenantza honetan araututako tasak ordaintzeko betebeharra erabilera edo ustiapena baimentzen den unean hasten da. Gainerako kasuetan, dagozkien tarifetan zehaztutako denboraldi bakoitzaren lehen egunean.

14. artikulua.

Tasak kasu bakoitzean ezarritako baldintzak betez ordaindu beharko dira.

15. artikulua.

Ustiapenaren emakidadunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, ustiapenak aurrera egiten ez duen kasuetan, dagokion zenbatekoa itzuli beharko zaio.

16. artikulua.

Interesatuak ustiatzeko lizentzia erabiltzeari uzten badio zentzuzko arrazoiengatik, hari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, ordaindutako tasa itzuli ahal izango dio administrazioak, betiere baimendutako ustiapenak beste ustiapen batzuk eragotzi ez baditu.

17. artikulua.

Hala badagokio, udal-administrazioak tasa horien zorren ordainketa eskatuko du presazko administrazio-prozeduraren bidez.

18. artikulua.

Ordenantza honetan araututako tasak kitatzerakoan, biltzerakoan eta ikuskatzerakoan Zerga Alorreko Foru Arau Orokorrean ezarritakoa aplikatuko da.

19. artikulua*.

Ezabatuta.

AZKEN XEDAPENA

Udalbatzak 2013ko urriaren 30eko bilkuran onartu zuen ordenantza hau eta bere eranskina, eta 2014ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean. Indarrean iraungo du harik eta hura aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

2013ko urriaren 30ean onartu zen behin betiko Udal-jabari Publikoa Okupatzeagatiko Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala, eta haren baitan kokatzen dira eranskinetako tarifak.

Hurrengo eranskinetako 16. puntua 2015ko urtarrilaren 29ko Osoko Bilkuran onartu zen eta GAOn iragarri eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean.

*19 artikulua hau 2014ko azaroaren 27ko Osoko Bilkuran onartutako zergen eta toki zuzenbide publikoko beste dirusarrera batzuen kudeaketa eta bilketa arautzen duen Ordenantza orokorrak ezabatu du, GAOn iragarri eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean. (GAO 2015/01/26).

ERANSKINA

Bilkura-data: 2013ko Urriaren 30a

1.- IBILGAILUAK ETA GURDIAK ERAIKINETARA ETA ORUBEETARA SARTU AHAL

IZATEKO ESPALOI GAINEAN DAUDEN SARBIDEENGATIK EDO PASABIDEENGATIK.

	2015ko tarifa
1. TARIFA, ibi iraunkor baimenduarekin:	
a) Ibilgailu 1	32,94
b) 2 ibilgailu	62,03
b) 3 ibilgailu	83,25
b) 4 eta 10 ibilgailu bitartean	179,52
e) 11 eta 30 ibilgailu bitartean	267,46
f) 30 ibilgailu baino gehiago	357,27
2. TARIFA, ibi iraunkorrik gabe:	
a) Ibilgailu 1	19,25
b) 2 ibilgailu	37,26
b) 3 ibilgailu	54,37
b) 4 eta 10 ibilgailu bitartean	107,66
b) 11 eta 30 ibilgailu bitartean	152,58
f) 30 ibilgailu baino gehiago	215,43
Goian adierazitakoaz gain, kopuru hau ere ordainduko dute: sarreraren zabalerak, espaloiarekin batzen den tokian, dituen metro linealen kopurua edo zatikia honako kopuruarekin biderkatzean lortzen dena:	8,16

2.- IBILGAILUAK ETA GURDIAK ERAIKINETARA ETA ORUBEETARA SARTU AHAL IZATEKO BIDE PUBLIKOAREN GAINEAN DAUDEN SARBIDEENGATIK EDO PASABIDEENGATIK.

2.1- Tarifa kalkulatzeko, sarrerak zabaleran hartzen dituen metro linealak edo metro lineal zatiak kopuru hauekin biderkatu beharko dira

Ibi iraunkorarekin 13,84 euro.

Ibi iraunkorrik gabe 8,16 euro

2.2.- Erabilera publikoko bideetan merkantziaren zamalanetarako espazioa gordetzeko eskatu duten partikularrek.

13,84 euro metro linealeko edo metro lineal zatiko urtean.

3.- ERABILERA PUBLIKOKO SAILEN ZORUPEA, LURZORUA ETA HEGADA OKUPATZEAGATIK.

Erregaiak edo bestelako likidoak gordetzeko tangengatik edo deposituengatik 53,15 euro urtean m²-ko edo m² zatiko.

4.- MAHAI, MAHAITXO, AULKI, ZOLADURA, LOREONTZI, ITZALKIN EDO ANTZEKO INSTALAZIOENGATIK.

Mahai bakoitzeko kuota urtean82,04 euro.

Udako kuota maiatzaren 1etik urriaren 31.....54,69 euro.

Mahaiak ateratzeko nahitaez baimena eskatu behar da. Baimena eskatzeko epea urtarrilatik martxoaren bitartean izango da alta berriak ezik. Kasu honetan alta ematen dutenetik 3 hilabeteko epean.

Tasa ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko da, baimen berriak ematen direnean izan ezik, horiei dagozkien tasak baimenak ematen diren egunean bertan sortuko baitira.

Udako tasa maiatzaren batean sortuko da, baimen berriak ematen direnean izan ezik, horiei dagozkion tasak baimenak ematen diren egunean bertan sortuko dira.

Baimena eskatu ezean eta mahaiak aterako balituzte ikuskapeneko txostenean azaltzen diren mahai kopuruari dagokion urteko tasa osoa likidatuko da.

Baimenean eskaturikoa beteko ez balitz, hau da, mahai kopuru gehiago aterako balute, mahai kopuru honi dagokion urte osoko tasa likidatuko da.

Taberna kanpoan kupelak edo antzekoak ezartzeagatik kupeleko.....20,50 euro.

5.- FERIETAN ETA OSPAKIZUNETAN SALTZAILE IBILTARIEK POSTUEKIN LURZORUA OKUPATZEAGATIK.

- Tarifa m²-ko eta eguneko izango da 5,83 euro.

Ordenantza honetan araututako kuotak urtekoak eta menderaezinak izango dira.

6.- LAGINKETAK EDO ZANGAK IREKITZEAGATIK

1.- Metro baterainoko zabalera duten laginketak edo zangak irekitzeagatik, metro lineal edo metro lineal zati bakoitzeko eta egun bakoitzeko0,59

2.- Ustiapena zeharbide batean egiten bada.....0,69

Ustiapenak udalak emandako epea gainditzen badu, kuota horiek %400 igoko dira.

7.- HORNIKETA-ZERBITZUETAKO ENPRESEK UDAL-BIDE PUBLIKOETAKO LURZORUA, ZORUPEA ETA ZORUGAINA HAIK SOILIK ERABILTZEAGATIK EDO ERA BEREZIREN BATEAN USTIATZEAGATIK.

Enpresa horiek udalerrian lortzen duten urteko fakturazioaren sarrera gordinen %1,5 ordaindu beharko dute.

8.- UDAL-FRONTOIA ERABILTZEAGATIK

Kantxa alokatzeagatik, orduko 10,34
Dutxako eta pertsonako 2,53
Probalekuak alokatzeagatik, ekitaldiko
.--karrejo aldaketa badago..... 648,97 € eguneko
.--Karrejo aldaketarik ez badago 97,75 € eguneko

Frontoia jaialdiak ospatzeko eta halakoetarako alokatzeagatik, eguneko eta eskaerako 401,98 euro.

Irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta entitateek eta erakunde publikoek ez dute ordaindu beharrik izango.

GUREA FRONTOIAN ZERBITZUA EMATEAGATIK EDO OKUPATZEAGATIK IKUSKIZUNAK ZUZENEAN

Sarrerako prezioa ikuskizunak ikusteko.....0-50 euro bitartean

9.- INSAUSTI JAUREGIA ETA SAN MARTINGO ONDAREGUNEA EZKONTZAK EDO HILETAK OSPATZEKO ERABILTZEAGATIK

Kuota..... 81,18 euro.

10.- KULTUR ETXEKO ARETO NAGUSIA ALOKATZEAGATIK

Eguneko eta eskaerako 77,93 euro.

11.- KULTUR ETXEKO GAINERAKO ARETOAK ALOKATZEAGATIK

Eguneko eta eskaerako 38,97 euro.

Irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta entitateek eta erakunde publikoek ez dute ordaindu beharrik izango.

12.- INSAUSTI JAUREGIKO GAINERAKO ARETOAK ERABILTZEAGATIK

Eguneko eta eskaerako 68,60 euro.

Ikus-entzunezko ekipoa alokatzeagatik 34,30 euro

Irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta entitateek eta erakunde publikoek ez dute ordaindu beharrik izango.

13.- BAZTARTXO ZINEMA-ARETOA ALOKATZEAGATIK

Eguneko eta eskaerako 389,66 euro.

Irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta entitateek eta erakunde publikoek ez dute ordaindu beharrik izango kultur etxea, Insausti Jauregia eta Baztartxo zinemaren erabileragaitik.

14.- SALTZAILE IBILTARIEK ZERBITZUAK JARTZEAGATIK AZOKETAN, AZOKA TXIKIETAN ETA ABARRETAN.

Metro karratuko edo okupazio-zatiko, 1,01 euro egunean.
Kuota hiru hilez behingoa izango da eta aurrez ordaindu beharko da.
Hiruhilekoren batean emakidaduna ez bada azokara azaltzen lau astez jarraian, galdu egingo du emakida.

15.-AZOKAKO POSTUAK

Hilabetean ordaindu

beharrekoa

Trinidad Otamendi Ecenarro	30,90
Milagros Gorostegui Alberdi.....	18,55.-
Victor Juan Larrañaga Aramendi	61,28.-
José Antonio Alberdi Zubizarreta.....	61,28.-

16.- BIDE PUBLIKOA OKUPATZEAGATIK OBRA-HONDAKINETARAKO KONTAINERREKIN, ALDAMIOEKIN EDO ALDI BATERAKO ZIRKULAZIOA OZTOPA DEZAKETEN BESTELAKO INSTALAZIO EDO ELEMENTUEKIN

m²-ko eta okupazio-eguneko.....0,63
Kontainer bakoitzeko egunean3,77

Azkoitia Lantzen, S.A.-k ez du ordaindu beharrik izango.
Aizkibel 2 kaleko etxebizitzaren birgaitzeko lanen exekuzioatik sortu daitekeen bide publikoaren okupatzearen tasa ez da ordaindu beharrik izango.

17.- BIDE PUBLIKOA IGOGAILUAK IPINITA OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

m²-ko eta eguneko0,03 €

18.- BIDE PUBLIKOA NEGOZIOAREN OSAGARRI BEZALA ERABILITA, LOKAL EDO ESTABLEZIMENDU BARRUTIK BERTAN ZUZENEAN EDOZEIN SALGAI SALTZEKO LURZORUAREN APROBETXAMENDUA EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

m²-ko edo zatikiko eta eguneko 0,30 €

Udaleko jabari publikoaren erabilpen pribatiboa edo ustiapen berezian datza zerga egitea. Zerga egitea ematen da bide publikoa onbidearen atal edo osagai moduan erabiltzen denean gaiak saltzeko beti ere behin behineko izaeran duten elementu edota instalazio desmuntagarriak erabiltzen direnean.

19 .- KALEAK IXTEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

A) Errei bat ixtea, egun erdiz (goizez edo arratsaldez)	49,06
B) Bi errei ixtea, egun erdiz (goizez edo arratsaldez)	98,12

Ez da tasa ordaindu behar izango errei bat itxi behar bada azpiegiturretan edo erabilera orokorreko ondasunetan eragina duen obra bat gauzatzeko.

Tasa ordaintzetik salbuetsita daude erakunde publikoak eta irabazteko asmorik gabeko elkarteak eta erakundeak.

20.- JABARI PUBLIKOTIK ERABILI BEHAR DIREN LOKALETAN KUTXAZAIN AUTOMATIKOAK ETA SALGAIK EMATEN DITUZTEN MAKINAK IPINITA LURZORU PUBLIKOA HARTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

2 m2-ko azalera kontuan hartuko da jabari publikotik erabili behar diren lokaletan ipinitako kutxazain automatiko bakoitzeko eta salgaiak ematen dituen makina bakoitzeko.	
Urteko kuota	218,82

ZERBITZU PUBLIKOAK EMAN ETA JARDUERAK EGITEAGATIKO TASA ARAUTZEKO ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Lurralde historikoko toki-ogasunak arautzen dituen foru-arauak araututakoari jarraiki, zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik tasak ezartzen eta biltzen ditu udal honek, ordenantza honek araututakoa betez. Ordenantza honen zati da bere eranskina, aplikagarri diren tarifak jasotzen dituena.

2. artikulua.

Udalerrri osoan aplikatzen da ordenantza.

II. ZERGA-EGITATEA

3. artikulua.

Zerbitzu bat emateagatik edo jarduera bat egiteagatik udal-administrazioak zergak jarri ahal izango ditu, hala eskatu delako edo partikularren ekintzek edo ekintza-ezek zeharka eragin dutelako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.

1.- Zerga honen subjektu pasiboak, zergadunak, hurrengo hauek dira: Lurralde Historikoko Zerga Alorreko Foru Arau Orokorreko 35.3 artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko, juridiko eta entitateak, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte edo zerbitzu edo jarduera horien onura edo eragina jasotzen badute.

2.- Zergadunen ordezkariak hauek izango dira:

a) Etxebizitzak edo lokalak erabiltzen edo okupatzen dituztenei eragiten dieten edo onuragarri zaizkien zerbitzuengatik edo jarduerengatik ezarritako tasen kasuan, etxebizitza edo lokal horien jabeak. Jabeek, hala badagokio, dagokien onuradunei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Suteak itzaltzeko zerbitzuak emateagatik tasen kasuan, arriskua aseguratuta duen entitatea edo sozietatea.

5. artikulua.

Derrigortuta daude tasak ordaintzera:

a) Partikularrek eskatuta egindako zerbitzuen edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.

b) Partikularrek eskatu ez arren, haien ekintzek edo ekintza-ezak eragindako zerbitzuen edo jardueren kasuan, ekintzaren edo ekintza-ezaren arduraduntzat jotzen direnak.

6. artikulua.

Subjektu pasiboez gain, ordenantza honen ondorioz sortzen diren zerga-zorren erantzule izango dira tarifen aplikazio-arauetan aipatzen diren pertsonak.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZTAPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua.

“Salbuespenak eta bestelako zerga-onurak emateko, ezargarriak diren xedapen orokorretan xedatutakoa bete beharko da:

Zubiaurre-Elkargune institutuan erabiliko diren onartutako tarifetan hobaria egin ahal izango da, gizarte-intereseke, kultura- eta kirol-jarduerak sustatzeko edo bazkideen kopuru handiagoa lortzeko arrazoiak direla-eta, institutuak alde zuzenetik proposatu eta proposamen bakoitza Udalbatza Osoak onartu eta gero”.

V ZERGA OINARRIA

8. artikulua.

Zerbitzua gauzatzeko egiten den zerbitzu bakoitzak osatzen du zerga-oinarria, dagokion tarifa hartuta kontuan.

VI. KUOTA.

9. artikulua.

Kuota kalkulatzeko, aurreko artikuluari jarraituz ateratzen den oinarriari eranskinean jasotako tarifen artetik dagokiona gehituko zaio, tarifak aplikatzeko arauak kontuan hartuz.

VII. SORTZAPENA.

10. artikulua.

Zerbitzua edo jarduera egitean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra.

VIII. LIKIDAZIOA ETA DIRU-SARTZEA.

11. artikulua.

Udal-administrazioak kontzeptu bakoitzari dagokiona likidatuko du. Horretarako, likidatutako zenbatekoa esku-dirutan sartuko da, dagozkion tarifetan jasotako ordainarazpen bakoitzaren arauak kontuan hartuz.

IX. TASEN KUDEAKETA.

12. artikulua.

Ordenantza honetan araututako tasak kitatzerakoan eta ikuskatzerakoan, bai eta zerga-arauen urraketak kalifikatzerakoan eta kasu bakoitzean jarri beharreko zehapenak zehazterakoan, Zerga Alorreko Foru Arau Orokorrean ezarritakoa aplikatuko da.

13. artikulua*.

Ezabatuta.

X. AZKEN XEDAPENA

Udalbatzak ordenantzan adierazitako datan onartu zuen ordenantza hau eta bere eranskina, eta 2014ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean. Indarrean iraungo du harik eta hura aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

2013ko urriaren 30ean onartu zen behin betiko zerbitzu publikoak eman eta jarduerak egiteagatiko tasen kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala, eta haren zati dira eranskin honetan jasotako tarifak.

Hurrengo eranskineko 20. puntuan jasotako tarifak 2014ko urriaren 30eko Osoko Bilkuran onartu ziren eta 2015eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Hurrengo eranskineko 1. puntua 2015ko urtarrilaren 29ko Osoko Bilkuran onartu zen eta GAOn iragarri eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean.

*13 artikulua hau 2014ko azaroaren 27ko Osoko Bilkuran onartutako zergen eta toki zuzenbide publikoko beste dirusarrera batzuen kudeaketa eta bilketa arautzen duen Ordenantza orokorrak ezabatu du, GAOn iragarri eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean. (GAO 2015/01/26).

ERANSKINA

Zerbitzu publikoak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko tasa aldatuak:

Bilkura-data: 2013ko urriaren 30a

1.- HIRIGINTZAKO BAIMENAK EMATEA:

a) Izapidetzeko proiektuaren beharrik ez duten obrak	42,45
b) Dagokion elkargoak ikus-onetsitako proiektua duten obrak, 18.000 euroko edo gehiagoko aurrekontua badute	409,18
c) 18.000 eurotik gorako obrako aurrekontuko proiektua duten obrak	680,80

Salbuespenak

Ordaintzetik salbuetsita dago Azkoitia Lantzen, SA.

Aizkibel 2 kaleko etxebizitzaren birgaitzeko obrak, sutearen ondorioz sortu direnak hain zuzen, salbuetsita daude.

2.- OBRA-JAKINARAZPENARI DAGOKION TASA

Tasaren kuota 42,45 €

Izapidetzeko proiekturik behar ez duten obra-lizentziak emateari dagokion tasa du. Tasa honen ordainazpen-eskubideetarako, obra-jakinazpena kontzeptuaren barruan sartzen dira barne-espazioak, egiturazko elementuak edo kanpoko fatzadak aldatzen ez dituzten eraberritze-obrak eta sukaldea eta komunak berritzeko lanak.

Obra-jakinazpena kontzepturik kanpo daude Monumento Multzoko (hirigune historikoa) eraikinetan egindako obrak, lizentzia behar baitute.

Udalak obra-jakinazpena deritzoa agiria emango du, eta horren bidez egiaztatuko da obrak egin behar direla jakinarazi zaiola udalari (betebehar bat da) eta dagokion zerga ordaindu dela. Horrenbestez, agiri hori, ondorio guztietarako, obra lizentzia izango da.

3.- FINKEN BANAKETA IZAPIDETZEKO ORDAINDU BEHARREKO TASA

Kuota 116,71 €

4.- TAXI-BAIMENAK ESKURATZEKO TASA

a) Udalak baimena ematea	1.300,87
b) Baimena eskualdatzea	1.821,21

5.- DOKUMENTUAK KOPIATZEKO ZERBITZUARI DAGOKION TASA

Eskatutako plano bakoitzeko	3,64
A4 formatuan, zuri-beltzean egindako kopia bakoitzeko (10 kopia baino gehiago egiten direnean kobratuko dira)	0,11
DIN A4 formatuan eta koloretan egiten den kopia bakoitzeko	0,88

A3 formatuan eta zuri-beltzean egindako kopia bakoitzeko	0,30
A3 formatuan eta koloretan egiten den kopia bakoitzeko	2,19
Informazioa CD eta disketeetan ematea	4,70
Hiri Antolaketako Arauei buruzko informazioa CD eta disketeetan ematea	70,35

6.- IDATZIZ EGINDAKO HIRIGINTZA- EDO ADMINISTRAZIO-KONTSULTAK IZAPIDETZEKO TASA

Kuota	58,45
Itxita eta artxibatuta dauden espedientei buruzko kontsulta bakoitzeko	3,76

7.- HIRIGUNEAN TERMITEN AURKAKO PREBENTZIOA, TRATAMENDUA ETA DESINFEKZIOA EGITEKO TASA

Kuota 62,70

8.- UDAL BIDE PUBLIKOETATIK TXAKURRAK JASOTZEAGATIKO TASA

Txakurra bide publikotik erretiratzea.....25,34 €

Txakurtegian egoteagatik, eguneko.....5,22 €

9.- UDALTZAINGOAK ATESTATUAK EGITEAGATIKO TASA

Hirugarren batek eskatuz udaltzaingoak atestatuak egiteagatik..... 50,69 €

10- ARMA LIZENTZIA ESKAERA IZAPIDATZEKO TASA

Kuota.....28,02 €

11.- ANIMALIA ARRISKUTSUAK EDUKITZEKO BAIMENA IGORTZEAGAITIK TASA

Kuota..... 54,74 €

12-ALDERDI-ESKARIZ EDO UDALAREN IZENEAN AURRI-EGOERA ADIERAZTEKO HASITAKO ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEKO TASA

Kuota 624,39 €

13.- GARABI-ZERBITZUA

Ibilgailuak besteak beste gaizki aparkatuta daudelako bide publikotik kentzea	74,40
Zepoa kentzea	26,26
Udaltzainek kendutako ibilgailuak udal-lokaletan gordetzea, eguneko edo egun-zatiko	8,75

15.- LOGOPEDIA ZERBITZUAREN TASA

Hileko kuota.(astean bi saio).....14,26 €

16.- ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAREN ONURADUNEN PARTAIDETZA EKONOMIKOA

SUBJEKTU PASIBOA

1 Hauek hartuko dira subjektu pasibotzat:

- A) Etxez etxeko zerbitzua erabiltzen duten pertsona nagusiak, haien egoera mendekotasun-egoeratzat jotzen badute Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentuko balorazio-zerbitzuek, beti ere Sakontzenen balorazioan 3 puntu baino gehiago baldin badituzte.
- B) Etxez etxeko zerbitzua erabiltzen duten pertsona nagusiak, autonomotzat jotzen badituzte Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentuko balorazio-zerbitzuek, beti ere Sakontzenen balorazioan 4 puntu baino gehiago baldin badituzte.
- C) Ezinduak, ezindu gisa baloratuak egoteaz gain, beste pertsonetikiko mendekotasunaren eskalan 15 puntu baino gehiago baldin badituzte, hau da, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko beste pertsonen mende baldin badaude.
- D) Gizarte- eta familia-egoeragatik, familia-antolaketarako kanpoko jendearen zaintza behar duten pertsonak.

2. Gaitasun ekonomikoa balioztatzeko, aldagai hauek hartuko dira kontuan:

a) **ERRENTA**

Familia-unitateak guztira dituen sarrerak hartuko ditugu errentatzat:

Lan-etekinak, baita pentsioak eta gizarte-aurreikuspenetako prestazioak ere, haien erregimena edozein delarik ere.

Higigarrien eta higiezinaren kapitalaren etekinak.

Enpresa- edo lanbide-jardueren etekinak.

(Balio horiek kalkulatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarako ezarritako arauak jarraituko dira).

b) **ONDAREA**

Higigarrien eta higiezinaren guztizko kapitala hartuko dugu ondareztat.

(Balio horiek kalkulatzeko, Ondarearen gaineko Zergarako ezarritako arauak jarraituko dira).

Higigarrien kapitala: kontu korronteko eta eperako gordailuak, inbertsio-fondoak eta pentsio-fondoak, balore higigarriak, bizi-asegurua eta aldi baterako edo biziarteko errentak, arte-objektuak, antzinatasuna, bitxiak eta baliozko objektuak.

Higiezinaren kapitala: landa- eta hiri-ondasun guztiak.

Ohiko etxebizitza: ohiko bizileku gisa finkatuta dagoen titulartasuneko etxebizitza.

Ondarearen mugak 2014.urterako hauek dira:

Kide bakarreko familiak: 38.291,86 € urteko

Bi kideko familiak: 76.583,72 € urteko

Hiru kideko familiak: 114.875,58 € urteko...

Muga hauek Aldundiak zehazten dituen kopuruetan eguneratuko dira 2015. urterako.

c) **FAMILIA- EDO BIZIKIDETZA-UNITATEKO PERTSONEN KOPURUA:**

Familia-unitatea: senar-emazteak eta haien mende dauden haurrek edo ezinduek osatzen dute, bai eta judizialki guraso-ahal luzatua edo birgaitua duten adin nagusiko ezgaituek.

Bizikidetza-unitatea: ohiko bizilekuan batera bizi diren pertsona guztiak osatzen dute.

Gaitasun ekonomikoaren gaineko datuak faltsutzeak edo ezkutatzeko zerbitzuak eten ahal izango ditu aldi baterako edo betiko.

ZERGA-KUOTA

Zerbitzu-orduko prezioa 20,39 euro

Onuradunak orduko gehiengoz 12 euro ordainduko du.

17. SAN JOSE EGOITZA

Psicogeriatrico	94,90
Menpekotasun haundia/Gran dependiente	88,03
3.gradua 1 eta 2 maila/Grado3 nivel 1 y 2	
Menpekotasun larria/Dependencia severa	88,03
2.gradua 1 eta 2 maila/ Grado 2 nivel 1 y 2	
Menpekotasun ertaina/Dependencia moderada	70,42
1.gradua, 1 eta 2 maila	
Autonomoak/Autonomo	57,84
Egoitzako tasak Apirilaren 30ko 20/2002 Foru Dekretura egokituko dira.	
Egoiliar bakoitzari bermatzen zaio lanbidearteko gutxieneko soldataren ehuneko 20a bere gastuetarako, bere irabazien ehuneko 85a ordaindu ondoren tarifa bezala.	
EGUNEKO ZENTROA	
Eguneko zentroa Astelehenetik Ostiralera	46,47
Eguneko zentroa Astebukaerak	53,44
Garraioa astelehenetik ostiralera	15,07
Garraioa astebukaerak	17,36
Eguneko zentroko ordainketa eguneko 14,05 € onaradunaren irabaziak 5.629,01€ baino gehiago badira,	
Irabaziak 5.629,01 € baino gutxiago badira eguneko zentroko ordainketa eguneko 7,03 € izango dira.	
Eguneko zentroko tasak Apirilaren 30ko 20/2002 Foru Dekretura egokituko dira.	
TUTORETZAKO ETXEBIZITZAK	
Autonomoak zerbitzu guztiak barne	58,49
Mendekotasuna 1.gradua zerbitzu guztiak barne	72,47
Etxez etxeko laguntza eta janaria sartu gabe (42%)	24,57
Janaria barne eta etxez etxeko laguntza sartu gabe(60%)	35,10
Egoiliar bakoitzari bermatzen zaio lanbidearteko gutxieneko soldataren ehuneko 20a bere gastuetarako, bere irabazien ehuneko 85a ordaindu ondoren tarifa bezala.	
Egoitza eta babes apartamentuen ekarpen gehiengoa eguneko 66,18 €koa izango da.	

KONTZEPTUA	2.015
EZGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO UDAL LAGUNTZA TEKNIKOA	
Hiileko kuota, alokairu gisa:	
Mugikortasunerako laguntzak: garabiak	15,65
Garbitasunerako eta bainurako osagarriak: bainurako aulki birakaria	5,22
Atsedenerako laguntzak: ohe artikulatua	15,65

Tasa hau ordainduko dute laguntza teknikoa jasotzen dutenak, betiere, gutxieneko diru-sarrereren bermeko laguntzaren onuradunentzat ezarritako diru-sarrerak baino altuagoak badituzte. Ondorio hauetarako, familia unitatzetat joko dira mendekotasun-egoeran dagoen pertsona eta horren ezkontidea edo izatezko bikotekidea soilik.

18.- GIZARTE LARRIALDIETAKO ETXEBIZITZA ERABILTZEAGATIK

Kuota hilean.....547,06

Etxebizitza hau familia batek baino gehiago erabiliko balu, tasa denen artean ordainduko da, araudiak ezartzen dituen irizpideak kontuan hartuz.

19- LUDOTEKA ERABILTZEKO URTEKO KUOTA

Urteko kuota65,65

20.- 2015RAKO ZUBIAURRE ELKARGUNE INSTITUTUKO TARIFAK

	GUZTIRA 2015
KONTZEPTUA	BEZa barne
2010/01/01 geroztik jaiotakoak (0-5 urte)	
2003/01/01 eta 2009/12/31 artean jaiotakoak (6-12urte)	23,38 €
1998/01/01 eta 2002/12/31 artean jaiotakoak (13-17 urte)	35,07 €
18 urtetik gorakoak	58,46 €
Erretiratuak 64 urtetik gorakoak	46,77 €
Langabeak	46,77 €
1989/01/01 eta 1997/12/31 artean jaiotako ikasleak	46,77 €
Elkarguneko bazkide lehen aldiz egiterakoan ez da matrikularik ordainduko, baina urtebete pasa baino lehen baja eman eta berriro alta eskatuz gero, matrikula ordaindu beharko da atal honetan azaltzen diren kopuruen arabera.	
BAZKIDEAK (3 hilabete)	
2010/01/01 geroztik jaiotakoak (0-5 urte)	
2003/01/01 eta 2009/12/31 artean jaiotakoak (6-12 urte)	35,07 €
Bi gurasoak langabezian balira edo guraso bakarreko kasuan langabezian balego, seme-alaben	

kuotak %25eko murrizpena izango du.

1998/01/01 eta 2002/12/31 artean jaiotakoak (13-17 urte)	42,09 €
Bi gurasoak langabezian balira edo guraso bakarreko kasuan langabezian balego, seme-alaben kuotak %25eko murrizpena izango du.	
18urtetik gorakoak	70,15 €
Erretiratuak 64 urtetik gorakoak	42,09 €
Langabeak	42,09 €
(Langabetuak hauen kuotaz goza ahal izateko hiru hilabeteko saioa hasi baino lehenago eraman beharko du langabezian dagoenaren dokumentua. Honek Elkarguneko edozein arlotarako balio du. Hiruhileko kuota pasa aurretik. Kuota hiruhilekoaren lehen egunean pasatzen da.)	
1989/01/01 eta 1997/12/31 artean jaiotako ikasleak (18-26urte)	42,09 €
1998/01/01 ondoren jaiotako seme-alabak (0-17 urte)	
Dituzten familia-unitateak (guraso biak bazkideak izanik)	
Edo guraso bakarreko familiak	117,13 €
Erreferentzi bezala lehenengo seme-alabaren jaiotza data hartuko da kontutan.	
FAMILIA UNITATEAK	
Familia unitatetzat, gurasoak eta 18 urtetik beherako seme alabez osatutako familiak hartuko dira. Familia unitateko kide guztiak ohiko etxebizitza bera eduki behar dute. Honetarako urtarrilaren bateko erroldako datuak hartuko dira oinarritzat. Familia unitatean guraso biak langabetuak balira familia unitatearen bonoaren kuota ehuneko 25ean murriztuko da. Baita ere guraso bakarreko familietan gurasoa langabetuz balitz.	
BAZKIDEEN KUOTAK	
